

LEGAZPIKO UDALA

Iragarkia

Legazpiko Udalerriaren Hizkuntza Ofizialen Erabilera arautzeko udal ordenantzaren hasierako onarpenaren aurkako erreklamazio edo iradokizunik egon ez denez, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49. artikularen c) azpitalaren azken paragrafoan zehaztutakoaren arabera, zeinari apirilaren 21eko 11/1999 Legeak gehigarri batzuk erantsi dizkion, Udalbatzak hartutako hasierako onarpena, orain behin-betiko bilakatu da. Hori horrela Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70-2 artikuluan aurreikusitakoa betetzearren, Ordenantza horren testu oso-oso argitaratzen da.

Erabaki hori argitaratzen dut aipatu erabakiak arduralaritzabidek ahitzen dituela adieraziz eta erabaki horren aurka adierazpena egiten den hurrengo egunetik eta bi hilabeteko epean Euskal Herriko Auzitegi Gorenean arduralaritzazuzipideetatikako errekurtsioa jarri ahal izango duzu, horrek egoki deritzazun beste edozein errekurtsio jartzeko aukera eragozten ez dizularik.

Legazpi, 2010eko azaroaren 16a.—Xotero Plazaola Odriozola, Alkatea. (13246)

LEGAZPIKO UDALERRIAN HIZKUNTZA OFIZIALEN ERABILERA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZA

AURKIBIDEA

Sarrera.

Lehen atalburua. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Hizkuntza ofizialak.
2. artikulua. Aplikazio esparrua.
3. artikulua. Lehentasunezko tratamendua beste hizkuntzekiko berdintasun erreala lortzeko.
4. artikulua. Zerbitzu hizkuntzak.

Bigarren atalburua.

5. artikulua. Herritarren hizkuntza-eskubideak.
6. artikulua. Lan hizkuntza.
7. artikulua. Udal barneko komunikazioa.
8. artikulua. Udal erregistroa, Erregistro liburua, Aurrekontuak eta Liburu ofizialak.
9. artikulua. Ohar, argitalpen, bando, araudi, ordenantza eta erabakiak.
10. artikulua. Udalbatzarrak, Gobernu Batzordeak eta Bilkuretako deialdiak.
11. artikulua. Komunikabideetako harremanak.
12. artikulua. Beste administrazioekiko harremanak.
13. artikulua. Hizkuntza ofizialen erabilera jarraibideen itzulpen irizpideak.
14. artikulua. Udal egoitzetako errotulazioa.
15. artikulua. Euskara soilik noiz erabiliko den.
16. artikulua. Tresna eta aplikazio informatikoak.
17. artikulua. Internet eta Intranet sareak.
18. artikulua. Lanpostuak betetzeko prozedurak.
19. artikulua. Kontratazio administratiboak.

AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI

Anuncio

No habiéndose presentado reclamación o sugerencia alguna en relación a la aprobación inicial de la Ordenanza municipal de Uso de las Lenguas Oficiales en Legazpi, al amparo de lo previsto en el párrafo final de la letra c) del art. 49 de la Ley 7/85, del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, introducido por la Ley 11/1999, de 21 de abril, el acuerdo de aprobación inicial adoptado por el Pleno del Ayuntamiento deviene en definitivo. Por dicho motivo, y a los efectos previstos en el art. 70-2.º de la Ley 7/85, del 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, se procede a la publicación del texto integro de dicha Ordenanza.

Lo que publico para su conocimiento y efectos, indicándole que este acto agota la vía administrativa y contra el mismo podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados a partir del día siguiente al día en que se le notifique el acto, sin perjuicio de que pueda interponer cualquier otro que tenga por conveniente.

Legazpi, a 16 de noviembre de 2010.—El Alcalde, Xotero Plazaola Odriozola. (13246)

ORDENANZAS MUNICIPALES DE USO DE LAS LENGUAS OFICIALES EN LEGAZPI

ÍNDICE

Introducción.

Primer capítulo. Disposiciones generales.

- Artículo 1. Lenguas oficiales.
- Artículo 2. Ámbito de aplicación.
- Artículo 3. Tratamiento prioritario para lograr igualdad para con otras lenguas.
- Artículo 4. Lenguas de servicio.

Segundo capítulo.

- Artículo 5. Derechos lingüísticos de los ciudadanos y ciudadanas.
- Artículo 6. Lengua de trabajo.
- Artículo 7. Comunicaciones administrativas internas del Ayuntamiento.
- Artículo 8. Registro, Libro de registros, Presupuestos y demás libros oficiales.
- Artículo 9. Notas, publicaciones, bandos, reglamentos, ordenanzas y decretos.
- Artículo 10. Plenos, Comisiones de Gobierno y convocatorias.
- Artículo 11. Medios de comunicación.
- Artículo 12. Relaciones con otros entes administrativos.
- Artículo 13. Criterios de traducción relativos a las normas de uso de las lenguas oficiales.
- Artículo 14. Rotulación interior.
- Artículo 15. Cuándo utilizar solo el euskera.
- Artículo 16. Herramientas y aplicaciones informáticas.
- Artículo 17. Redes Internet e Intranet.
- Artículo 18. Procedimientos para cubrir puestos de trabajo.
- Artículo 19. Contrataciones administrativas.

Hirugarren atalburua.

- 20. artikulua. Kanpoko errotulazioa.
- 21. artikulua. Herritarrei zuzendutako ekintzak.
- 22. artikulua. Argitalpenak.
- 23. artikulua. Ekitaldi publikoak.
- 24. artikulua. Garraio publikoa.
- 25. artikulua. Helduen euskalduntzea eta Alfabetatzea.
- 26. artikulua. Jarraipenerako batzordea.
- 27. artikulua. Udal proiektuak.

Laugarren atalburua.

Xedapen gehigarriak.

Indargabetzeko xedapena.

Azken xedapena.

SARRERA

Euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza da, eta, euskara nahiz gaztelania, biak hizkuntza ofizialak dira Euskal Autonomia Erkidegoan Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluari eta 10/1982 Legean, azaroaren 24koan, hizkuntza-alorrean garatutakoari jarraiki. Hiritar guztiek dute ezagutu eta erabiltzeko eskubidea, eta Komunitate Autonomoko Erakundeek dagokie erabilera arautzea eta bermatzea.

Administrazio bakoitzari dagokio aipatutako arau eta xedapen orokorrak bere eremuan aplikatzea, eta horretarako arauak eman eta bitartekoak ezartzea. Horixe da Ordenantza honen xedea, hau da, indarrean dauden xedapen orokorrak Legazpiko Udalaren jardun eremuan garatu eta aplikatu beharreko arauak eman eta betearaztea.

Euskara, Euskal Herriaren berezko hizkuntza eta gaztelania bezala ofiziala izateaz gain, Euskal Herri osoaren ondare da. Hori horrela, hiritar guztien elementu integratzaile izan behar du, eta, Legazpiko Udalean eta udalerrian normaltasunez erabiltzea lortzeko xedez, lehentasunezko tratamendua emango dio Legazpiko Udalak euskararen erabilerari, eta, horretarako, behar diren erabakiak hartuko ditu.

I. ATALBURUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Hizkuntza ofizialak.

Euskara eta gaztelania dira EAEko hizkuntza ofizialak, eta, era berean, Legazpiko Udaleko eta udalerriko hizkuntza ofizialak.

2. artikulua. Aplikazio esparrua.

Legazpiko Udalak eta haren mendeko erakundeek euskara eta gaztelania erabiliko dituzte, aplikazio orokorra izateko emandako lege, arau eta Ordenantza honetako xedapenen arabera; hori hala egingo dute, bai barne-funtzionamenduan, bai herritarrekin eta organismo eta erakunde guztiekin izan beharreko harremanetan, euskararen erabilera normalizatzea helburu nagusi dutela, betiere.

3. artikulua. Lehentasunezko tratamendua beste hizkuntzekiko berdintasun erreala lortzeko.

Euskara, hainbat eta hainbat urtetan izan duen prozesuaren ondorioz, normaltasun osoa lortzeko bidean dago. Hortaz, bi hizkuntzen arteko normaltasun lortzeko xedez, lehentasunezko tratamendua emango dio Legazpiko Udalak euskararen erabilerari.

Tercer capítulo.

- Artículo 20. Rotulación exterior.
- Artículo 21. Actividades para ciudadanos y ciudadanas.
- Artículo 22. Publicaciones.
- Artículo 23. Actos públicos.
- Artículo 24. Transporte público.
- Artículo 25. Euskaldunización y alfabetización de adultos.
- Artículo 26. Comisión de seguimiento.
- Artículo 27. Proyectos municipales.

Cuarto capítulo.

Disposiciones adicionales.

Disposición derogatoria.

Disposición final.

INTRODUCCIÓN

El euskera es la lengua propia del País Vasco y, según el artículo 6.º del Estatuto de Autonomía del País Vasco y en atención a lo establecido referente al idioma en la Ley 10/1982 de 24 de noviembre, el euskera y el castellano son idiomas oficiales en la Comunidad Autónoma Vasca. Todos los/las ciudadanos/as tienen derecho a conocer y usar el euskera y corresponde a las instituciones de la Comunidad Autónoma regular y garantizar su uso.

Corresponde a cada Administración aplicar dichas normas y disposiciones en su ámbito de actuación y dictar las normas y establecer los medios necesarios para ello. Ese es el objetivo de esta Ordenanza, es decir, dictar y hacer cumplir las normas a aplicar y desarrollar en el ámbito de actuación del Ayuntamiento de Legazpi dirigidas al cumplimiento de las disposiciones generales en vigor.

El euskera, además de ser la lengua propia de Euskal Herria y ser, como el castellano, lengua oficial, es patrimonio de toda Euskal Herria. Siendo eso así, debe ser elemento integrador de todos/as los/las ciudadanos/as y con el objetivo de lograr su uso normalizado en el ayuntamiento y en el municipio de Legazpi, el ayuntamiento de Legazpi le otorgará tratamiento de prioridad al uso del euskera y, para ello, tomará las decisiones necesarias.

PRIMER CAPÍTULO

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1. Lenguas oficiales.

El euskera y el castellano son lenguas oficiales en la Comunidad Autónoma Vasca y del mismo modo, en el Ayuntamiento y municipio de Legazpi.

Artículo 2. Ámbito de aplicación.

El Ayuntamiento de Legazpi y organismos municipales dependientes utilizarán el euskera y el castellano en consonancia con las leyes y normas dictadas de aplicación general y en función de las disposiciones recogidas en esta Ordenanza. Y eso lo llevarán a cabo tanto en el funcionamiento interno, como en sus relaciones con los/las ciudadanos/as y con otros organismos e instituciones, teniendo siempre como objetivo la normalización del uso del euskera.

Artículo 3. Tratamiento prioritario para lograr igualdad real para con otras lenguas.

El euskera a consecuencia del proceso de tantos y tantos años se halla en camino de una situación de normalidad. Por consiguiente, con el objetivo de lograr la total normalización de las dos lenguas oficiales, el Ayuntamiento de Legazpi dará un tratamiento de preferencia a su uso.

4. artikulua. Zerbitzu-hizkuntzak.

Euskara eta gaztelania herritarrei zerbitzua emateko hizkuntzak izango dira Legazpiko Udalean atal eta jarduera esparru guztietan. Udalak herritarrekin dituen harreman mota guztietan bermatu beharko da bi hizkuntzon erabilera, betiere herritarren nahiak kontuan harturik.

II. ATALBURUA

5. artikulua. Herritarren hizkuntza-eskubideak.

Euskal Herriko herritar guztiek dute, hitzez nahiz idatziz, euskara ala gaztelania erabiltzeko eskubidea, abenduaren 18ko 3/1979 Oinarrizko Legeko 6.1 atalaren arabera. Ondorioz, Legazpiko Udalak, honako arauak jarraituko ditu:

1. Ahozko harremanak:

a) Legazpiko Udaleko langileak herritarri lehenik euskaraz egingo dio, eta gero, komunikazio-etena izango balitz, herritarrek aukeratzen duen hizkuntzan jarraituko luke.

b) Hartzaile jakinik ez duten ahozko mezuak (erantzun-gailu automatikoz, telefono bidezko informazio zerbitzuen bidez, bozgorailuz eta abarrez emandakoak) euskaraz eta gaztelaniaz emango dira, hurrenkera horretan.

2. Idatzizko harremanak:

a) Legazpiko Udalak bere zerbitzuak emateko erabiltzen dituen inprimaki guztiek bi eredu izango dituzte: Bata euskara hutsean, eta bestea euskaraz eta gaztelaniaz, baina lehentasuna euskarari emanez.

b) Era berean Udalaren eta menpeko organismoen zigilu guztiak —barne funtzionamendukoak nahiz publikoak diren agerietan jartzekoak— euskara hutsean izango dira.

c) Herritarrek Udalarekin izan beharreko harremanetan euskaraz aritzea aukeratu dutenean, edota haiek euskara hutsean bidalitako idatzien erantzuna euskara hutsean egingo da.

d) Espedienteak, bukatu, hasi diren bezala bukatuko dira, euskara hutsean ala bi hizkuntzetan.

6. artikulua. Lan Hizkuntza.

a) Udalak beharrezko erabakiak hartuko ditu, aurreko artikuluetan aitortutako eskubideak benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen. Hortaz, herritarren zerbitzu-hizkuntza ez ezik, lan-hizkuntza ere izango da euskara Legazpiko Udalean, Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera.

b) Derrigorrezko hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta daukaten langileei bi hizkuntza ofizialetan jarduteko gaitasuna aitortzen zaie, eta hizkuntza batean zein bestean erantzungo diote lanari.

7. artikulua. Udal barneko komunikazioa.

1. Langileen arteko lan-harremanak euskaraz izango dira.

2. Langileentzako komunikazioak (posta elektronikoz, barruko iragarki-taulan jarritako oharrak) euskaraz izango dira.

Artículo 4. Lenguas de servicio.

El euskera y el castellano serán las lenguas en que se prestará servicio a los/las ciudadanos/as en todos los ámbitos y dependencias del Ayuntamiento de Legazpi. Se garantizará el uso de ambas lenguas en cualquier relación que el Ayuntamiento mantenga con los ciudadanos y ciudadanas, de acuerdo con la elección que manifiesten.

SEGUNDO CAPÍTULO

Artículo 5. Derechos lingüísticos de ciudadanos y ciudadanas.

Según la Ley Básica 3/1979 del 18 de diciembre, en el capítulo 6.1 todos los ciudadanos y ciudadanas del País Vasco tienen derecho a utilizar en las relaciones orales y escritas las dos lenguas oficiales. Por consiguiente, el Ayuntamiento de Legazpi seguirá las siguientes reglas:

1. Relaciones orales:

a) Los empleados y empleadas del Ayuntamiento de Legazpi se dirigirán a los ciudadanos y ciudadanas inicialmente en euskera. Si hubiera problemas de comunicación se continuará en la lengua que elijan estos últimos.

b) Los mensajes orales sin destinatario determinado (es decir, los emitidos mediante contestador automático, servicios de información telefónica, altavoces y similares) se realizarán en euskera y en castellano, por ese orden.

2. Relaciones escritas:

a) Se dispondrán de dos modelos de los impresos utilizados en cualquiera de los servicios del Ayuntamiento: Uno redactado sólo en euskera y otro en euskera y castellano, pero dando prioridad al euskera.

b) Del mismo modo, todos los sellos del Ayuntamiento y organismos municipales dependientes —bien de uso interno, bien de uso público— serán solo en euskera.

c) Cuando el ciudadano o ciudadana haya manifestado su opción por el euskera, o cuando se trate de una respuesta dada a un escrito presentado en lengua vasca, la respuesta será solo en euskera.

d) Los expedientes se finalizarán del mismo modo que se hayan comenzado: Sólo en euskera o en euskera y castellano.

Artículo 6. Lengua de trabajo.

a) El Ayuntamiento tomará las medidas necesarias para que los derechos reconocidos en los artículos anteriores sean reales y eficaces. Por lo tanto, en el Ayuntamiento de Legazpi el euskera será utilizado como lengua de servicio y como lengua de trabajo, según lo dispuesto en la presente Ordenanza.

b) Se reconoce al personal que tenga acreditado el perfil lingüístico preceptivo asignado a su puesto de trabajo la capacidad para desarrollar su labor indistintamente en las dos lenguas oficiales, por lo tanto realizarán su trabajo en cualquiera de ellas.

Artículo 7. Comunicaciones administrativas internas del Ayuntamiento.

1. La lengua de trabajo entre los empleados será el euskera.

2. La comunicación escrita interna (correo electrónico, notas en el tablón de anuncios) será sólo en euskera.

8. artikulua. Udal-erregistroa, Erregistro-liburua, Aurrekontuak eta gainontzeko Liburu ofizialak.

1. Udal-bulegoetako Erregistro Administratiboetan euskaraz egingo dira inskripzioak, edozein dela ere aurkeztutako dokumentuan erabilitako hizkuntza.

2. Erregistroak egindako ziurtagiriak euskaraz edota bi hizkuntzetan egingo dira.

3. Erregistroari lotutako aplikazio informatiko guztietan alor bat egongo da sartzen edo irteten den dokumentazioa zein hizkuntzetan dagoen adierazteko.

4. Aurrekontuak eta liburu ofizialetako idazkiak euskaraz edota bi hizkuntzetan egingo dira.

9. artikulua. Ohar, argitalpen, bando, araudi, ordenantza eta erabakiak.

Udalaren eta haren mende dauden erakundeen ohar, argitalpen, bando, araudi, ordenantza eta erabakiak, idatzizkoak zein ahozkoak, euskara hutsean edo euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko dira, euskarari lehentasuna emanez.

Herritarrentzako informaziorako iragarki-taulako idazkiak, Udalean sortutakoak zein kanpotik jarritakoak, euskara hutsean edo euskaraz eta gaztelaniaz argitaratuko dira. Kanpoko beste administrazio batzuetatik bidalitako idatzietan jatorrizko hizkuntza berean argitaratuko dira.

10. artikulua. Udalbatzarrak, Gobernu Batzordeak eta Bilkuretako deialdiak.

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege-Dekretuak, 86. artikuluan Udalbatzar eta Gobernu Batzordeei buruz honako hau arautzen du:

Kontuan hartuz organo guztien helburua euskara lanerako ohiko hizkuntza bihurtzea dela, Udalak bitarteko eta erabaki guztiak hartuko ditu –Udal batzarkideek harremanerako aukeraturutakoaren arabera betiere- organo informatibo, Gobernu Batzorde, Udal Batzarraren deialdi eta aktak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatz eta zabal daitezzen.

Organo horiek hartutako erabakien gaineko jakinarazpenak bi hizkuntzetan egiten direnean, euskarari lehentasuna emango diote, denbora, tamaina, kopuru edota lekuari dagokienez.

11. artikulua. Komunikabideetako harremanak.

Komunikabideetan argitaratzen diren iragarkiak euskaraz emango dira aditzera lehentasunez, gaztelania erabili behar denean euskarazko mezua lehenetsiko da denbora, tamaina, kopurua eta lekua kontuan hartuta. Era berean, komunikabide-etara bidaltzen diren ohar, abisu eta informazioekin ere berdin jokatuko du Legazpiko Udalak. Bestalde, Udalak komunikabideei euskara lehenestea eskatuko die.

Publizitate instituzionala egiteko garaian, herrialdeko egunkari irakurrienean egiten bada, euskara lehentasunez hartuko da kontuan. Kasu guztietan, euskara hutsezko iragarkiak jarriko dira herrialdeko euskarazko egunkaririk irakurrienean.

Publizitatea egiteko garaian, euskarazko herriko komunikabideak beti hartuko dira kontuan. Era berean, euskarazko herriko komunikabideak sustatu eta lagundu egingo ditu Udalak.

Artículo 8. Registro, Libro de registros, Presupuestos y demás Libros oficiales.

1. En los registros administrativos, la inscripción de los documentos se hará en euskera, independientemente de la lengua empleada en el documento presentado.

2. Los certificados realizados desde el registro se harán sólo en euskera o en euskera y castellano.

3. En todas las aplicaciones informáticas relacionadas con el registro figurará un campo destinado a señalar la lengua en que esté redactado el documento recibido o enviado.

4. Los presupuestos y escritos de los libros oficiales serán solo en euskera o en euskera y castellano.

Artículo 9. Notas, publicaciones, bandos, reglamentos, ordenanzas y decretos.

Las notas, publicaciones, bandos, reglamentos, ordenanzas y decretos, tanto escritos como orales, se redactarán solo en euskera o en euskera y castellano, dando prioridad al euskera.

Los documentos de información en el tablón de anuncios dirigidos a ciudadanos y ciudadanas serán publicados en euskera o en euskera y castellano. Los documentos enviados desde otras administraciones se publicarán en la lengua de origen.

Artículo 10. Plenos, Comisiones de Gobierno y Convocatorias.

El artículo 86 del Real Decreto 2568/1986 de 28 de noviembre, en relación a las sesiones de Plenos y a las Comisiones de Gobierno, establece lo siguiente:

Teniendo en cuenta que el objetivo de todos los órganos es que el euskera se convierta en la lengua habitual de trabajo, el Ayuntamiento tomará las medidas y decisiones necesarias –en función siempre de la lengua adoptada por los miembros de la corporación para sus relaciones? para que las convocatorias y actas de los órganos informativos, Comisiones de Gobierno y Plenos de la corporación se redacten y difundan en euskera o en euskera y castellano.

Cuando las notificaciones sobre las decisiones adoptadas por dichos órganos se redacten en los dos idiomas, se otorgará preferencia al euskera en el tiempo, tamaño, cantidad o lugar.

Artículo 11. Medios de comunicación.

Los anuncios que se harán públicos en los medios de comunicación se publicarán primeramente en euskera; cuando se utilice el castellano, se otorgará prioridad al mensaje redactado en euskera en cuanto al tiempo, tamaño, cantidad o lugar. Asimismo, el ayuntamiento de Legazpi actuará de la misma forma a la hora de enviar a los medios de comunicación notas, avisos y demás información. Por otro lado, el ayuntamiento solicitará a los medios de comunicación que otorguen prioridad al euskera.

A la hora de realizar publicidad institucional, si se realiza en los periódicos más leídos de la región, se otorgará preferencia al uso del euskera. En todos los casos, se publicarán anuncios redactados sólo en euskera en aquellos medios de comunicación de la región que se difundan únicamente en euskera.

A la hora de hacer publicidad, se tendrán siempre en cuenta los medios de comunicación locales que se publiquen en euskera. Asimismo, el ayuntamiento impulsará y ayudará a los medios de comunicación locales que se difundan en euskera.

12. artikulua. Beste administrazioekin izan beharreko harremanak.

a) Espedientea Legazpiko Udalean hasten denean, Eusko Jaurlaritzaren mende dauden organoekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako herri administrazioekin izan beharreko harreman idatziak euskaraz edota bi hizkuntza ofizialetan egingo dira.

b) Beste administrazioetatik jasotako idatzien erantzuna euskaraz badago, euskara hutsean egingo da; gainontzekoetan, bi hizkuntza ofizialetan.

c) Herri administrazioa Euskal Autonomia Erkidegotik kanpokoa baldin bada, euskara ofiziala den lurralde batean dagoenean, euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatziko da.

13. artikulua. Hizkuntza ofizialen erabilerako jarraibideen itzulpen irizpideak.

a) Bi hizkuntza ofizialetan argitaratu behar diren idatziak itzultzeko edo itzularazteko betebeharrak departamentu bakoitzaren erantzukizuna da.

b) Ahal den neurrian, administrazio atalean dauden baliabideak (hizkuntza eskakizuna egiaztaturik duten langileak, eredu normalizatuak, informatika-tresnak eta abar) erabilita ziurtatu behar dira dokumentu elebidunak sortzea. Nahikoa ez denean, euskara-teknikaria arduratuko da testuak zuzentzen edota itzultzen.

c) Itzulpen eskeak Euskara Zerbitzura bidaltzen direnean, idatzia itzultzeko arrazoizko epea aurrez planifikatuko da.

14. artikulua. Udal-egoizetako errotulazioa.

Bulego eta lan-geletako errotuluak eta mota bereko gainetarako adierazleak euskaraz egongo dira. Hala ere, egoerak horrela eskatuz gero, bi hizkuntzetan agertuko da, beti ere euskarari lehentasuna emanez.

15. artikulua. Euskara bakarrik noiz erabiliko den.

a) Udalarekin dituzten harremanetarako euskara aukeratzeko duten herritar eta gizarte erakundeei bidaltzen zaizkien eskutitz, agiri eta jakinarazpenetan.

b) Euskara lan-hizkuntza duten herri-administrazioei bidalitako idatzietan.

c) Euskara normalizatzeko lanean ari diren enpresa, saltoki eta era guztietako entitateei eta Euskalgintzakoei bidaltzen zaizkien idatzietan.

d) Errotuluetan, seinaleetan eta antzekoetan euskaraz eta gaztelaniaz idatzera antzekoa denean.

e) Mezua piktogramen bidez adieraz daitekeenean.

f) Jasotzaileak euskararen ulermena bermatuta duenean.

g) Aditza ematen den ekintzaren izaerak eta harremanen berezitasunak hala eskatzen dutenean.

h) Kale, plaza eta edozein leku publikoren izena, bai errotuluetan, baita izen horiek biltzen dituen kaleen izendegi ofizialean ere.

16. artikulua. Tresna eta aplikazio informatikoak.

1. Legazpiko Udaleko zerbitzuetan programa informatiko komertzial edo orokorrak instalatzean, horiek euskarazko bertsioa badute, bertsio hori instalatuko zaie Legazpiko Udaleko langile guztiei. Hala ere, behar izanez gero, aztertu egingo litzaiteke gaztelaniazko bertsioaren beharra.

Artículo 12. Relaciones con otros entes administrativos.

a) Cuando el expediente haya sido iniciado por el Ayuntamiento de Legazpi con los órganos dependientes del Gobierno Vasco y con el resto de administraciones públicas se hará solamente en euskera o en euskera y castellano.

b) La contestación a escritos remitidos por otras administraciones públicas se hará en euskera si el escrito original está en esa lengua y en las dos lenguas oficiales en los demás casos.

c) Cuando se trate de una administración pública no perteneciente a la Comunidad Autónoma Vasca, situada en un territorio en el que el euskera sea lengua oficial, se redactarán solo en euskera o en las dos lenguas oficiales.

Artículo 13. Criterios de traducción relativos a las normas de uso de las lenguas oficiales.

a) La obligación de traducir o hacer traducir los documentos que deban de ser publicados es responsabilidad, en cada caso, del departamento correspondiente.

b) En la medida en que sea posible, la producción de documentos bilingües se garantizará utilizando los medios presentes en el propio servicio (empleados con perfil lingüístico acreditado, modelos normalizados, herramientas informáticas, etc.). Cuando tales medios sean insuficientes, el departamento de euskera será el encargado de corregir o traducir dichos documentos.

c) A la hora de realizar una petición de traducción se deberá planificar con antelación un plazo razonable para la traducción del documento solicitado.

Artículo 14. Rotulación interior.

La rotulación e indicadores de despachos y oficinas estarán solo en euskera. Sin embargo, si la situación lo requiere se hará en euskera y castellano, dando prioridad al euskera.

Artículo 15. Cuándo se utilizará únicamente el euskera.

a) En los escritos, documentos y notificaciones enviados a aquellos/as ciudadanos/as y entidades sociales que hayan elegido el euskera como lengua de relación con el ayuntamiento.

b) En los escritos dirigidos a las administraciones públicas que tengan como lengua de trabajo el euskera.

c) En los escritos dirigidos a empresas, establecimientos y cualquier tipo de entidad que trabajen a favor de la normalización del euskera y los dirigidos a las entidades que trabajan a favor de la actividad cultural vasca.

d) En los rótulos, señales de tráfico y demás cuando la escritura en euskera y castellano sea similar.

e) Cuando el mensaje se pueda expresar por medio de un pictograma.

f) Cuando el receptor tenga garantizada la comprensión del euskera.

g) Cuando así lo soliciten la naturaleza del acto que se notifica y las características de los/las receptores/as.

h) En los nombres de calles, plazas y lugares públicos, bien sea en rótulos o en callejeros oficiales.

Artículo 16. Herramientas y aplicaciones informáticas.

1. En los programas informáticos comerciales y de uso general que dispongan de versión en euskera se instalará únicamente dicha versión a los empleados y empleadas del Ayuntamiento de Legazpi. En cualquier caso, si fuera necesario se examinaría la necesidad de la versión en castellano.

2. Legazpiko Udaleko zerbitzuetan erabiltzeko berariaz sortzen diren programa edo tresna informatikoei bi hizkuntza ofizialetan berdin lan egin ahal izateko prestaturik egon behar dute. Departamentu edo zerbitzu bakoitzaren erantzukizuna izango da hori bermatzeko erabaki zehatz eta argiak hartzea.

3. Xede horri begira, programa informatikoaren moldaera sortzerakoan bertsio elebidun bat egiteko egon ohi diren hizkuntza baldintzapenak kontuan hartu beharko dira. Bereizki saihestu beharko da programa osorik gaztelaniaz egin eta gutziz bukatu ondoren ekitea euskarazko bertsioari, jokabide horrek sarritan zailtasun gaindiezinak ezartzen dizkio-eta euskarazko moldaera txukun eta erabilgarriari.

4. Ordenantza honen indarraldiaren aurretik erabiltzen diren programa informatikoak euskaraz lan egin ahal izateko prestaturik ez badaude, informatika departamentuak ordenantza hau indarrean sartu eta arrazoizko epean tresna informatiko horiek egokitu eta prestatuko ditu.

17. artikulua. Internet eta intranet sareak.

1. Legazpiko Udalaren eskumenean diren Internet eta intranet sareetako edukiak, oro har, euskaraz eta gaztelaniaz kontsultatzeko moduan egongo dira.

2. Udalaren web orrietara sartzean, euskarazko orria agertuko da lehenbizi, eta orri horretan bertan egongo da gaztelania eta gainerako hizkuntzak hautatzeko aukera, horrelakorik izanez gero.

3. Intranet sarea euskara hutsean eskainiko zaie udal langileei.

4. Internet sarearen bidez izapideak egiteko aukera ematen denean, izapide horiek euskaraz edo gaztelaniaz egiteko moduan egongo dira.

5. Administrazioaren ohiko prozeduraz kanpo, departamentuek web orrietan kanpoan sortutako edukiak jartzen dituztenean, irizpide orokor hauek jarraituko dira:

a) Bi hizkuntza ofizialak modu orekatuan erabiliko dira. Departamentu bakoitzaren ardura izango da oreka hori ziurtatzea.

b) Lotura bat erabiltzen denean euskarazko orria agertuko da lehenbizi, eta orri horretan bertan egongo da gaztelania hautatzeko aukera, horrelakorik izanez gero.

18. artikulua. Lanpostuak betetzeko prozedurak.

Legazpiko Udalak indarrean dagoen legeak kasurako arautzen dituenei jarraituz egingo ditu langile berrien kontratazioak, lanpostuak betetzekoak direnak, zein langileak hartzekoak.

Bete beharreko lanpostuaren hizkuntza-eskakizuna derrigorezkoa ez denean, merezimendutzat hartuko da euskaraz jakitea, eta apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan adierazitako puntuaziorik altuena emango zaio hautaketa saioetan.

19. artikulua. Kontratazio administratiboak.

1. Kontratu bidez emandako jarduerak zerbitzuak Legazpiko Udalak berak edo bere mendeko erakundeak emanak izango balira bezala jasotzeko eskubidea aitortzen zaie herritarrei.

2. Kontratuen baldintza administratibo berezien eta ezaguri teknikoaren agiriak bi hizkuntza ofizialetan argitaratuko dira.

2. Los programas o herramientas informáticas creadas expresamente para su uso en los servicios del Ayuntamiento de Legazpi estarán preparados para poder ser utilizadas en las dos lenguas oficiales. El departamento o servicio afectado en cada caso tendrá la responsabilidad de adoptar las medidas precisas y concretas para garantizar tal extremo.

3. A tal efecto, en la fase de concepción del programa informático se tendrán en cuenta los condicionamientos usuales para la realización de una versión bilingüe. Se debe evitar expresamente la realización completa de la aplicación primero en castellano, para emprender después su versión al euskera, puesto que tal medida puede interponer obstáculos insalvables a una versión adecuada y útil en euskera.

4. En los casos de programas informáticos realizados con anterioridad a la entrada en vigor de la presente ordenanza y que no estén preparados para poder ser utilizados en euskera, el departamento de informática en un plazo razonable desde la entrada en vigor de la presente ordenanza adaptará y preparará dichas herramientas informáticas.

Artículo 17. Redes Internet e intranet.

1. Los contenidos de responsabilidad del Ayuntamiento de Legazpi accesibles desde Internet o intranet deberán poder ser consultados, como norma general, en euskera y en castellano.

2. El acceso inicial a la página Web del Ayuntamiento de Legazpi deberá ser a la página en euskera, en la cual constará el enlace correspondiente a la página en castellano y otras lenguas si procede.

3. Los empleados y empleadas municipales tendrán el acceso a intranet sólo en euskera.

4. En los casos en que se posibilite la realización de trámites a través de Internet, deberá existir la opción tanto en euskera como en castellano.

5. Fuera del campo habitual de la administración, cuando se incorporen en la página Web contenidos elaborados por colaboradores externos, se seguirán los siguientes criterios:

a) Se utilizarán las dos lenguas oficiales de forma equilibrada. Será responsabilidad de cada departamento asegurar un tratamiento equilibrado.

b) Cuando se utilice un enlace deberá ser a la página en euskera, en la cual en su caso constará el enlace a la página en castellano.

Artículo 18. Procedimientos para cubrir los puestos de trabajo.

El ayuntamiento de Legazpi realizará las contrataciones de nuevos/as trabajadores/as, tanto para dotar puestos de trabajo como para contratar trabajadores, siguiendo las normas establecidas para el caso en las leyes en vigor.

Cuando el perfil lingüístico del puesto de trabajo a dotar no tenga fecha de preceptividad, el conocimiento del euskera será meritorio y se le otorgará en el proceso selectivo la puntuación más alta establecida en el Decreto 86/1997 de 15 de abril.

Artículo 19. Contrataciones administrativas.

1. Se reconoce a los ciudadanos y ciudadanas el derecho a recibir los servicios prestados mediante contratos en las mismas condiciones que si fueran realizados por el propio Ayuntamiento.

2. Los pliegos de cláusulas administrativas particulares y de condiciones técnicas de las contrataciones deberán redactarse en las dos lenguas oficiales.

3. Edozein kontratu administratiboren bidez (herrilanak, hornidurak, zerbitzuak, zerbitzu-kudeaketa nahiz kontratu bereziak) eman beharreko zerbitzuak herritarrekin harreman zuzena izatea dakarrenean, baldintza hauek beteko dira:

a) Erabiltzaileek eta, oro har, herritarrek bi hizkuntza ofizialetan hartuak izateko duten eskubidea errespetatuz eman beharko du zerbitzua kontratistak.

b) Herritarrentzako inprimakiak, oharra eta jakinarazpenak euskaraz eta gaztelaniaz eman beharko ditu enpresa esleipendunak, herritarrek berariaz inolako aukeraketarik egin ez badu.

c) Legazpiko Udalaren edota haren mendeko erakunderen baten kontratu bat esleiturik duten entitateek edo pertsona fisikoek kontratuaren jardunaren ondorioz sortutako agerpen publiko guztietan bi hizkuntza ofizialak erabili behar dituzte.

d) Esleipendunak bi hizkuntza ofizialetan aurkeztu beharko ditu lanak, kontratua egiten duen organoak zehazki besterik adierazten ez badu. Legazpiko Udalak ez du bere gain hartuko mota horretako kontratu baten bitartez sortutako lan idatzen itzulpenik.

e) Hizkuntza ofizialen erabilera zuzena zaindu eta begiratzea kontratua egiten duen organoaren erantzukizuna izango da, eta horretarako Euskara Zerbitzuaren laguntza eta aholkularitza izango ditu.

Kontratazioa egin eta kudeatzeko eskumena duten organoek bidezkoak diren erabakiak hartuko dituzte, kontratudunek al honetan xedatutakoa betetzen dutela egiaztatzeko eta erabilietako hizkuntzen zuzentasuna zaintzeko.

III. ATALBURUA

20. artikulua. Kanpoko errotiluzioa.

a) Toponimia.

Legazpiko udalerriko kale, bide, auzo, auzune, mendi, ibai eta erreken izendegi ofiziala eta oro har toponimoak, Legazpiko Udalak, kasu guztietan euskarazko edo gaztelaniazko jatorria errespetatuz, hizkuntza bakoitzaren grafia propioarekin erabiliko ditu.

b) Trafiko eta informazio seinaleak.

1. Aipatu seinaleak piktogramak erabiliz bakarrik argigariak baldin badira, euskaraz bakarrik egongo dira.

2. Euskaraz eta gaztelaniaz antzera idazten denean, euskaraz bakarrik egongo dira.

3. Gainerakoetan euskarari lehentasuna emango zaio, tamaina edota lekuari dagokionez.

21. artikulua. Herritarrentzako ekintzak.

Azaroaren 24ko 10/82, Euskararen erabilera normalizatzeko Oinarriko Legeak xedatutakoaren arabera, herri-agintariei dagokie gizarte-eremu guztietan eta publikitatean euskara erabiltzeko neurriak hartzea.

Beraz, Legazpiko Udalak, aipatutako xedearen harian, honako neurri hauek hartu eta betearaziko ditu:

Udalak berak antolatutako jardueretan zein dirulaguntzak jasotzen dituzten erakundeek, elkarteek, klubek, pertsona fisikoek nahiz entitate juridikoek antolatutakoetan, ondorengo arau hauek beteko dituzte:

3. Cuando la prestación del servicio objeto de la contratación (obras públicas, abastecimiento, servicios, gestión de servicios o contratos especiales) comporte una relación directa con la ciudadanía, se cumplirán las siguientes condiciones:

a) La empresa contratista deberá prestar el servicio respetando el derecho del ciudadano/a a ser atendido en las dos lenguas oficiales.

b) Los impresos, escritos y notificaciones de uso público deberán ser realizados en euskera y en castellano por la empresa adjudicataria, salvo opción expresa por parte del ciudadano o ciudadana.

c) Las entidades o personas físicas adjudicatarias de un contrato del Ayuntamiento de Legazpi o de sus organismos dependientes deberán utilizar el euskera en las intervenciones públicas ligadas a la actividad del contrato.

d) La entidad adjudicataria facilitará en las dos lenguas oficiales los trabajos, salvo indicación contraria del órgano responsable del contrato. El Ayuntamiento de Legazpi no asumirá la traducción de documentos escritos creados en virtud de tales contratos.

e) Será responsabilidad del órgano contratante el velar por el correcto uso de las lenguas oficiales, para lo cual dispondrá de la asistencia y asesoría del Servicio de Euskera.

El órgano competente en la contratación tendrá la responsabilidad de poner los medios necesarios a fin de asegurar el cumplimiento por parte de las entidades adjudicatarias de lo dispuesto en el presente capítulo y del correcto uso de las lenguas oficiales.

TERCER CAPÍTULO

Artículo 20. Rotulación exterior.

a) Toponimia.

El Ayuntamiento de Legazpi determinará los nombres oficiales de calles, caminos, barrios, barriadas, montes, ríos y arroyos del municipio de Legazpi, y en general la toponimia del lugar respetando el origen vasco o castellano de los términos que deberán ser escritos con la grafía propia de cada lengua.

b) Señales informativas y de tráfico.

1. Si el mensaje de dichas señales es claro sólo con la utilización de pictogramas, las señales estarán sólo en euskera.

2. Cuando el mensaje se escriba de manera similar en euskera y castellano, irá redactado sólo en euskera.

3. En el resto de los casos se otorgará tratamiento de preferencia al euskera, en cuanto al tamaño o lugar.

Artículo 21. Actividades para los ciudadanos y ciudadanas.

Conforme a lo dispuesto en la Ley 10/82, Básica de normalización del uso del euskera de 24 de noviembre, corresponde a las autoridades públicas tomar las medidas oportunas para el uso del euskera en todos los ámbitos sociales y en publicidad (art. 26 y 27).

Por tanto, el ayuntamiento de Legazpi, cumpliendo con dicha disposición, tomará y hará cumplir las medidas oportunas.

El ayuntamiento, tanto en las actividades organizadas por él mismo como en aquellas organizadas por instituciones, asociaciones, grupos, personas físicas o entidades jurídicas con la ayuda económica del ayuntamiento, hará cumplir las siguientes normas:

Hemezortzi urtetik beherakoei eskaintako ekintzak.

Hemezortzi urte bitarteko haur eta gaztetxoentzat eskainiko diren ekintza guztiak euskaraz izango dira. Ekintza horien inguruko iragarkiek, txartelek, publizitateak ere euskara hutsean egon beharko dute. Dena dela, publizitatea gurasoentzat denean, bi hizkuntzak erabili ahal izango dira, beti ere, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Adinez nagusi diren herritarrentzako ekintzak.

1. Ekintza bakoitzean hartzaileak hartuko dira kontuan, eta hartzaileak euskaldunak badira, ekintza hori euskaraz egin beharko da.

2. Hizkuntza idatziaren aldetik, iragarkiek, txartelek, publizitateak eta abarrek euskara hutsean edo euskaraz eta gaztelaniaz izan beharko dute, beti ere euskarazkoari lehentasuna emanez.

3. Aurkezpenetan eta agurretan, gutxienez, euskararen erabilera ziurtatu egin beharko da.

Herritar guztientzako ekintzak antolatzen direnean.

1. Edozein motatako materiala banatu baino lehen, Udaleko Euskara Zerbitzura ale bat ekarri beharko dute, horrek hizkuntz arloko oniritzia eman dezan.

2. Bi hizkuntzetan egiten den ohar, txartel eta publizitatean kontuan hartu beharrekoak:

a) Ezagunak edo nahiko erabiliak diren euskal hitz edo esaldiak euskaraz bakarrik idatziko dira.

b) Euskaraz eta gaztelaniaz antzera idazten diren hitz eta esaldiak euskaraz bakarrik idatziko dira.

c) Bozgorailu, irrati eta gisakoetatik egiten den propaganda, ohar eta abarretan euskaraz lehentasuna izan beharko du.

Dirulaguntzak eskuratzeko baldintzetariko bat izango da hori guztia, eta bete beharrekoa izango da hartzaileek, subentzioa jasoko badute.

Udal-instalazioak, aretoak, plazak eta materialak erabiltzen dituzten erakunde eta enpresa guztiak aurreko puntuan aipatutako baldintzak bete beharko dituzte, eta Udalak baimena ematerakoan baldintza horiek jakinaraziko dizkie erabiltzaileei.

22. artikulua. Argitalpenak.

Gida, aldizkari, katalogoetan edo zabalkunderako argitalpen guztietan bi hizkuntza ofizialak erabili behar direnean euskarari lehentasuna emango zaio.

23. artikulua. Ekitaldi publikoak.

Legazpiko Udalak antolatzen dituen prentsaurreko, ekintza instituzional, hitzaldi, mahai inguru, jardunaldi tekniko, ikastaro, erakusketa eta abarren antolamendu fasean hizkuntza trastera zehatza definitu beharko du departamentu arduradunak, alderdi hauek kontuan izanda: Ekitaldiaren helburuak, gaiak, eragin soziala, hartzaile edo entzule potentzialak, hizlari edo irakasleak, eta erabili edo banatuko den materiala.

24. artikulua. Garraio Publikoa.

Udal garraio publikoetako inprimaki, abisu eta adierazpenak euskaraz edo bi hizkuntzetan, euskarari lehentasuna emanez egingo dira. Era berean, Legazpiko Udalerrian abiapuntu edo geralekua duten garraio publikoetako arduradunei ere gauza bera egin dezaten eskatuko zaie.

Actividades para menores de 18 años.

Aquellas actividades organizadas para niños y jóvenes menores de 18 años se realizarán en euskera. Todos los anuncios, carteles, publicidad deberán ser únicamente en euskera. En el caso de que la publicidad vaya dirigida a los padres, se podrán utilizar las dos lenguas oficiales, dando siempre prioridad a la presencia del euskera.

Actividades para mayores de 18 años.

1. Se tendrá en cuenta a quien va dirigida cada una de las actividades, y, si los destinatarios son vasco-parlantes, dicha actividad deberá ser en euskera.

2. En cuanto a la producción escrita los anuncios, entradas, publicidad, etc. se realizarán en euskera o euskera y castellano, dando prioridad al euskera.

3. Como mínimo en las presentaciones y saludos de los actos públicos se garantizará la presencia del euskera.

Actividades para ciudadanos y ciudadanas en general.

1. Antes de distribuir el material escrito, habrá de presentar un ejemplar al Servicio de Euskera del Ayuntamiento, para que éste dé su visto bueno.

2. Condiciones que se deberán seguir en las notas, carteles, publicidad, etc., que se redacten en las dos lenguas oficiales:

a) Los términos y frases euskericas conocidas o bastante usadas, se escribirán solamente en euskera.

b) Las palabras y frases que se expresen en euskera y castellano de manera similar, se escribirán solo en euskera.

c) En los avisos, publicidad y demás que se expresen a través de altavoces, radios, etc., en los casos que se hagan en euskera y castellano se dará prioridad al euskera.

Todo lo anteriormente citado será condición para optar a las subvenciones y los solicitantes estarán obligados a cumplir las normas lingüísticas para poder recibir dicha subvención.

Todas las entidades y empresas que deban utilizar instalaciones municipales, locales, plazas y materiales deberán cumplir dichas normas, y el Ayuntamiento deberá informar de las mismas a todos los usuarios.

Artículo 22. Publicaciones.

Cuando las guías, revistas, catálogos o cualquier publicación divulgativa deban redactarse en las dos lenguas oficiales se dará prioridad al euskera.

Artículo 23. Actos públicos.

En su fase de preparación, las ruedas de prensa, actos institucionales, conferencias, mesas redondas, jornadas técnicas, cursos, exposiciones y similares deberán contar con una definición precisa, por parte del departamento organizador, de su tratamiento lingüístico, tomando en consideración los objetivos del acto, los temas a tratar, su repercusión social, los oyentes o receptores, los ponentes o profesores, y el material a utilizar.

Artículo 24. Transporte público.

Los impresos, avisos y comunicaciones de los transportes públicos serán en euskera o en las dos lenguas oficiales dando prioridad al euskera. Del mismo modo, se exigirá a los responsables de los transportes públicos que tengan el punto de partida o parada el municipio de Legazpi que cumplan estos requisitos.

25. artikulua. Helduen euskalduntzea eta Alfabetatzea.

Hizkuntza normalizazioaren esparruan Udal honen xede nagusienetakoa da Legazpin euskaraz hitz egiten dakiten kopurua gehitzea eta hitz egiteko gai direnek erabil dezatela. Kontuan hartuz euskalduntzearena erantzukizun publikoa dela, helduen euskalduntze eta alfabetatzea laguntzeko ahalegin berezia egingo du.

Legazpiko Udalak, Euskararen erabilera eta euskalduntze-alfabetatzeari dagokionez, lehentasuna emango dio Udal Euskaltegiarekin elkarlanean aritzeari.

26. artikulua. Jarraipenerako batzordea.

Hizkuntza-normalizazioaren segimendua Euskara Batzordeak egingo du, eta berebiziko garrantzia izango du ordenantza honen aplikazioari dagozkion gaietan.

Euskara Batzordeari dagokio Ordenantza hau betetzera zuzendutako proposamenak prestatzea, eta baita ordenantzaren garapenaren segimendua, kontrola eta ebaluaketa-lanak ere.

27. artikulua. Udal proiektuak.

Udal proiektu eta programa guztietan aintzat hartuko da Ordenantza honek bizkarrezur duen hizkuntza-normalizazioaren irizpidea.

IV. ATALBURUA

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Legazpiko Udalak sortu edota bultzatzen dituen programa guztietan hizkuntza erabileraren normalizazioaren ikuspegia kontuan hartu beharko da, eta Udaleko Euskara Zerbitzua izango da Udaleko Zerbitzu eta Departamentu guztiak informatuko dituen, beti ere Ordenantza honen eta indarrean dagoen araudi juridikoaren ildotik, hizkuntza normalizazioarako ikuspegiaren presentzia berma dadin. Nolanahi ere, dagoen udal-organoak har ditzake horren gaineko erabakiak.

Hala ere, atera behar diren kartelek, argitalpenek, edota trafikoko seinaleek Euskara Zerbitzuko oniritzia beharko dute.

Bigarrena. Udalak onartutako gainontzeko Ordenantza eta xedapenek, Ordenantza honetan jasotakoak bereganatu egin beharko dituzte.

INDARGABETZEKO XEDAPENA

Baliorik gabe geratzen dira Ordenantza honen maila berekoak edo txikiagoak izanik, Ordenantza honetan xedatuarekin bat ez datozen edo kontrajarrita dauden erabaki guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honen aplikazioa eta garapenerako beharrezkoak diren xedapen eta programa bereziak erabaki eta bultzatuko dituzte Udaleko Organo Exekutiboek.

Artículo 25. Euskaldunización y alfabetización de adultos.

Dentro del ámbito de la normalización del idioma, uno de los objetivos principales de este ayuntamiento es aumentar el número de personas que conozcan el euskera y promover el uso en aquellos que ya lo conocen. Teniendo en cuenta que la euskaldunización es una responsabilidad pública, el ayuntamiento hará un esfuerzo adicional para colaborar en la euskaldunización y alfabetización de adultos.

El Ayuntamiento de Legazpi en su tarea de promover el uso del euskera e impulsar la euskaldunización-alfabetización, dará prioridad al trabajo en equipo con el Euskaltegi municipal.

Artículo 26. Comisión de seguimiento.

El seguimiento de la normalización lingüística será realizado por Servicio de Euskera y ofrecerá atención especial a la aplicación de lo establecido en esta Ordenanza.

Corresponderá a la Comisión de Euskera elaborar las propuestas dirigidas al cumplimiento de lo dispuesto en esta Ordenanza, así como el seguimiento, control y trabajos de evaluación del desarrollo de la misma.

Artículo 27. Proyectos municipales.

En todos los proyectos y programas se tendrá muy en cuenta el criterio de normalización lingüística, columna vertebral de esta Ordenanza.

CUARTO CAPÍTULO

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primero. En todos los programas que lleve a cabo o impulse el ayuntamiento de Legazpi, habrá que tener en cuenta el planteamiento de la normalización del uso del euskera, y será el Servicio de Euskera quien informará a todos los servicios y departamentos del ayuntamiento sobre esta Ordenanza y la normativa jurídica en vigor para que se garantice el enfoque de normalización del idioma. De cualquier modo, el órgano municipal correspondiente será quien tome las decisiones al respecto.

Aun así, antes de distribuir los carteles, publicaciones y señales de tráfico habrá de presentar un ejemplar al Servicio de Euskera para que éste de su visto bueno.

Segundo. Todas las ordenanzas y disposiciones que haya aprobado el ayuntamiento deberán incorporar lo establecido en esta Ordenanza.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas aquellas disposiciones del mismo nivel o menores que no sean conformes a lo establecido en esta Ordenanza, así como aquellos acuerdos que la contradigan.

DISPOSICIÓN FINAL

Los órganos ejecutivos municipales decidirán e impulsarán las disposiciones y programas especiales que sean necesarios para la aplicación y desarrollo de esta Ordenanza.